**Zk-5290**

220/2000 DEKRETUA, 2000ko azaroaren 7koa, Kirolaren Euskal Kontseilua arautzen duena.

Euskadiko Kirola arautzen duen ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 7. artikuluak Kirolaren Euskal Kontseilua jotzen du Administrazio Publikoen aholkularitza, kontsulta, jarraipena nahiz eztabaida sektoriala ahalbidetzen duen organo nagusitzat, Euskal Autonomia Erkidegoko kirol politikari eragiten dioten gaietarako. Organo hori kirolaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita dago, eta bertan, Eusko Jaurlaritzako, Euskadiko Foru eta udal administrazioetako eta Euskal Autonomia Erkidegoko kirol federazioetako ordezkariek egon behar dute. Era berean, horretan parte hartzeko aukera dute kirol munduan oso esanguratsuak izan diren pertsonak, kirol gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saileko titularrak izendatuta.

Orain arte, Kirolaren Euskal Kontseilua urtarrilaren 24ko 9/1989 Dekretuak arautu du. Arauzko testu horrek aldaketa ugari behar direla ikusarazi du urteen buruan. Batetik, Kirolaren Euskal Kontseiluak, bere gaur egungo egiturarekin, ez du balio izan euskal kirolaren munduko alderdi guztiak batzeko organotzat. Izan ere, egitura horrekin, ahots gabe geratzen ziren Euskal kirolaren barruko eremu ugari. Bestetik, Kirolaren Euskal Kontseiluaren antolaketa nahiz funtzionamendua eraginkorragoa izan behar da. Ikuspegi horren arabera, Dekretu honek ondokoa eratu nahi du: Euskal kirolaren munduko sektore guztiak (publiko nahiz pribatu) elkartzeko organoa. Kirolaren Euskal Kontseilua parte-hartze, kontsulta, eztabaida edo aholkularitza ahalbidetzen duen organo nagusitzat baliagarria izateko, beharrezkoa da gure kirol sistemaren perspektiba nahiz sentikortasun guztiak bertan bilduta egotea. Horretaz gain, aldaketa hau, Kontseiluaren eraketari buruzkoa, antolaketa zein funtzionamendu arau berriekin osatzen da, eta, azken hauek Kirolaren Euskal Kontseilua biziagoa eta eraginkorragoa izatea ahalbidetuko dute.

Bestalde, berorren osaketa, izendapen sistema, funtzionamendu erregimenak eta funtzioak arauen bidez ezarri behar dira, gorago aipatutako 14/1998 Legearen 7.3 artikuluan adierazitakoaren arabera. Halaber, Legearen 4.2 artikuluak adierazten duenez, Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunei dagokie Kirolaren Euskal Kontseilua antolatu nahiz arautzea. Horri dagokionez, Legearen azken xedapenetatik hirugarrenak dioenez, Eusko Jaurlaritzak ere ezar ditzake Kirolaren Euskal Kontseiluak bere garapenerako behar dituen xedapenak.

Ondorioz, Kultura sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2000ko azaroaren 7an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

**N°-5290**

DECRETO 220/2000, de 7 de noviembre, por el que se regula el Consejo Vasco del Deporte.

La Ley 14/1.998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco, contempla en su artículo 7 la existencia del Consejo Vasco del Deporte como órgano superior de asesoramiento, consulta, seguimiento y debate sectorial de las Administraciones públicas en asuntos que afecten a la política deportiva en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Dicho órgano, adscrito al Departamento del Gobierno Vasco con competencias en materia deportiva, debe estar integrado necesariamente por representantes del Gobierno Vasco, Administraciones forales y municipales del País Vasco y federaciones deportivas vascas. Asimismo, pueden formar parte del mismo, personas de reconocido prestigio en el mundo del deporte designadas por el titular del Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de deporte.

Hasta la fecha de hoy el Consejo Vasco del Deporte ha estado regulado por el Decreto 9/1989, de 24 de enero. Dicho texto reglamentario ha evidenciado a lo largo de los últimos años la necesidad de numerosas modificaciones. Por un lado, el Consejo Vasco del Deporte no ha servido, con su configuración actual, como órgano de encuentro de todos los segmentos del deporte vasco. Con dicha composición quedaban sin voz importantes áreas de nuestro deporte. Por otra parte, la organización y funcionamiento del Consejo Vasco del Deporte ha de resultar más operativa. Desde dicha perspectiva, el presente Decreto pretende constituir un órgano de encuentro de los representantes de las diversos sectores, públicos y privados, del deporte vasco. Para que el Consejo Vasco del Deporte sea un válido órgano de participación, consulta, debate o asesoramiento es preciso garantizar la presencia de las diversas perspectivas y sensibilidades de nuestro sistema deportivo. Además, dicha modificación en cuanto a la composición del Consejo se complementa con nuevas normas de organización y funcionamiento que tratan de posibilitar un Consejo Vasco del Deporte más vital y operativo.

Por otra parte, la composición, el sistema de designación, el régimen de funcionamiento y las funciones del Consejo Vasco del Deporte deben ser, según el artículo 7.3 de la Ley 14/1998, antes citada, establecidos reglamentariamente. Asimismo, el artículo 4.2 de la Ley atribuye a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma la competencia para la regulación y organización del Consejo Vasco del Deporte. En este sentido, la disposición final tercera de la Ley también faculta al Gobierno Vasco para dictar las disposiciones necesarias en desarrollo de la misma.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada el día 7 de noviembre de 2000,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.–* Dekretuaren xedea.

Dekretu honen xedea Kirolaren Euskal Kontseiluaren antolaketa, osaketa, izendapen sistema, funtzionamendua nahiz funtzioak arautzea da.

*2. artikulua.–* Definizioa.

Kirolaren Euskal Kontseilua herri-administrazioen aholkularitza, kontsulta, jarraipena nahiz eztabaida sektoriala ahalbidetzen duen organo nagusia da, Euskal Autonomia Erkidegoko kirol politikari eragiten dioten gaietarako.

*3. artikulua.–* Atxikipen organikoa.

Kirolaren Euskal Kontseilua Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari atxikita dago, bere egitura hierarkikoan sartzen ez bada ere.

*4. artikulua.–* Funtzioak.

Kirolaren Euskal Kontseiluak ondoko funtzioak beteko ditu:

a) Euskal Autonomia Erkidegorako kirol-politika orokorraren arauak proposatzea eta botere publikoen kirol-politiken arteko lankidetza, koordinazioa eta egituratzea bermatuko duten neurriak proposatzea.

b) Kirolarekin erlazionaturiko xedapen orokorren proiektuei buruzko irizpena ematea.

c) Kirol modalitate nahiz diziplinen kalifikazioari buruzko irizpena ematea.

d) Kirol federazioen administrazio izaerako berezko funtzio publikoak betetzeko gaikuntza bereziei buruzko irizpena ematea.

e) Kirol federazioak eratzeko nahiz baliogabetzeko prozesuei buruzko irizpena ematea.

h) Kirolariak, teknikariak edo epaileak goi-mailakotzat kalifikatzeko irizpide nahiz baldintzei buruzko irizpena ematea.

i) Autonomia Erkidegoko kirol politikari dagozkion arazoei eta kirol gaietan Administrazio publikoek azaldutakoei buruzko informazioa ematea.

j) Administrazio Publikoen organoei jarduketa-iradokizun nahiz -proposamenak zuzentzea, Euskal Autonomia Erkidegoko kirol politikari dagozkion arazoetan.

k) Urteroko memoria onestea; bertan Kontseiluak garatzen duen jarduera, Euskal Autonomia Erkidegoko kirol egoera eta beharrezko iradokizunak jasoko dira.

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.–* Objeto del Decreto.

Es objeto del presente Decreto regular la organización, composición, sistema de designación, régimen de funcionamiento y las funciones del Consejo Vasco del Deporte.

*Articulo 2.–* Definición.

El Consejo Vasco del Deporte es un órgano superior de asesoramiento, consulta, seguimiento y debate sectorial de las Administraciones públicas en asuntos que afecten a la política deportiva en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 3.–* Adscripción orgánica.

El Consejo Vasco del Deporte está adscrito al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, aunque no se integrará en su estructura jerárquica.

*Artículo 4.–* Funciones.

El Consejo Vasco del Deporte ejercerá las siguientes funciones:

a) Proponer las directrices de política deportiva general para la Comunidad Autónoma del País Vasco y proponer medidas que aseguren la colaboración, coordinación y estructuración de las políticas deportivas de los poderes públicos.

b) Informar sobre los proyectos de disposiciones de carácter general relacionadas con el deporte.

c) Informar sobre la calificación de modalidades y disciplinas deportivas.

d) Informar sobre las habilitaciones especiales para el ejercicio de las funciones publicas de carácter administrativo propias de las federaciones deportivas.

e) Informar sobre todos los procesos de constitución y revocación de federaciones deportivas.

h) Informar sobre los criterios y condiciones que permiten calificar a un deportista, técnico o juez de alto nivel.

i) Informar sobre cualesquiera otras cuestiones que afecten a la política deportiva de la Comunidad Autónoma y le fueren sometidas por las Administraciones publicas en materia deportiva.

j) Dirigir sugerencias y propuestas de actuación a los distintos órganos de las Administraciones públicas en asuntos que afecten a la política deportiva en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

k) Aprobar una memoria anual que recoja la actividad desarrollada por el Consejo, la situación deportiva en la Comunidad Autónoma del País Vasco y las oportunas recomendaciones.

l) Beste xedapen batzuen arabera erakunde honen parte-hartzea eskatzen duten gaietan, beharrezko funtzioak betetzea.

*5. artikulua.–* Administrazio Publikoekiko lankidetza.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko organoek beharrezko laguntza eman beharko diote Kirolaren Euskal Kontseiluari, honek bere funtzioak behar bezala bete ahal izateko.

II. KAPITULUA
ANTOLAKETA, OSAKETA, IZENDATZE SISTEMA ETA FUNTZIOAK

*6. artikulua.–* Antolaketa.

Kirolaren Euskal Kontseiluaren antolaketa hauxe da:

a) Osoko Bilkura.

b) Batzorde Iraunkorra.

c) Batzorde Bereziak.

d) Lehendakaritza.

e) Lehendakariordetza.

f) Idazkaritza.

*7. artikulua.–* Osoko Bilkura osatzea eta izendatzea.

1.– Kirolaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurako partaideak hauexek dira:

a) Kultura sailburua.

b) Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea.

c) Kirol zuzendaria.

d) Soin Hezkuntzako Euskal Erakundeko zuzendaria.

e) Osasun sailburuak izendatutako pertsona bat (gutxienez zuzendaria izan behar da).

f) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak izendatutako pertsona bat (gutxienez zuzendaria izan behar da).

g) Foru Aldundien hiru ordezkari, bakoitza Foru Aldundi batekoa.

h) Udal Administrazioetako hiru ordezkari, Kultura sailburuak izendatuak, udaletako interesak ordezkatzen dituzten euskal elkarteen proposamenaren arabera.

i) Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientzietako Irakasle eta Lizentziatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Elkargoko ordezkari bat, Kultura sailburuak izendatua, aipatutako entitateak proposaturikoaren arabera.

j) Euskal Kirol Federazioen Batasunaren ordezkari bat, Kultura sailburuak izendatua, aipatutako entitateak proposaturikoaren arabera.

l) Cualesquiera otras funciones en asuntos en los que, en virtud de otras disposiciones, sea preceptiva la intervención de dicho órgano.

*Artículo 5.–* Deber de colaboración de las Administraciones públicas.

Los órganos de las Administraciones públicas de la Comunidad Autónoma deberán prestar la colaboración oportuna que el Consejo Vasco del Deporte les solicite para el correcto ejercicio de las funciones encomendadas.

CAPÍTULO II
ORGANIZACIÓN, COMPOSICIÓN, SISTEMA DE DESIGNACIÓN Y FUNCIONES

*Artículo 6.–* Organización.

La organización del Consejo Vasco del Deporte es la siguiente:

a) El Pleno.

b) La Comisión Permanente.

c) Las Comisiones Especiales.

d) La Presidencia.

e) La Vicepresidencia.

f) La Secretaría.

*Artículo 7.–* Composición y designación del Pleno.

1.– Son miembros del Pleno del Consejo Vasco del Deporte:

a) La Consejera de Cultura.

b) El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

c) El Director de Deportes.

d) El Director del Instituto Vasco de Educación Física.

e) Una persona, con rango mínimo de Director, designada por el Consejero de Sanidad.

f) Una persona, con rango mínimo de Director, designada por el Consejero de Educación, Universidades e Investigación.

g) Tres representantes de las Diputaciones Forales, designados uno por cada Diputación Foral.

h) Tres representantes de la Administración municipal, designados por la Consejera de Cultura, a propuesta de las asociaciones vascas representativas de los intereses municipales.

i) Una persona, en representación del Colegio Oficial de Profesores y Licenciados en Ciencias de la Actividad Física y del Deporte del País Vasco, designada por la Consejera de Cultura, a propuesta de dicha entidad.

j) Una persona, en representación de la Unión de Federaciones Deportivas Vascas, designada por la Consejera de Cultura, a propuesta de dicha entidad.

k) Kirol profesionalaren ordezkari bat, Kultura sailburuak izendatua, sektore horrek proposaturikoaren arabera.

l) Lau pertsona, modalitate olinpikoetako euskal kirol federazioetako ordezkariak, Kultura sailburuak izendatuak, aipatutako sektoreak proposaturiko pertsonen artean.

m) Bi pertsona, modalitate olinpikoak ez diren euskal kirol federazioetako ordezkariak, Kultura sailburuak izendatuak, aipatutako sektoreak proposaturiko pertsonen artean.

n) Bi pertsona, 14/1998 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aipatutako modalitateekin erlazionaturiko kirol federazioetako ordezkariak, Kultura sailburuak izendatuak, aipatutako sektoreak proposaturiko pertsonen artean.

o) Pertsona bat, ezintasun fisiko, psikiko, sentsorial edo mistoa duten pertsonek praktikatzen duten kirolaren ordezkaria, Kultura sailburuak izendatua, aipatutako sektoreak proposaturiko pertsonen artean.

p) Pertsona bat, unibertsitateko kirolaren ordezkaria, Kultura sailburuak izendatua, aipatutako sektoreak proposaturiko pertsonen artean.

q) Pertsona bat, dibertimenduzko kirolaren ordezkaria, Kultura sailburuak izendatua, aipatutako sektoreak proposaturiko pertsonen artean.

r) Pertsona bat, eskola kirolaren ordezkaria, Kultura sailburuak izendatua, aipatutako sektoreak proposaturiko pertsonen artean.

s) Kultura sailburuak izendatutako hiru pertsona, kirolaren inguruan sortzen diren entitate publiko nahiz pribatuek proposatuak edo Kontseiluan bestela agertzen ez diren interes nahiz atalen ordezkari izango direnak.

t) Kirolaren munduan sona handia duten hiru pertsona, gehienez, Kultura sailburuak izendatuak.

u) Kultura sailburuak izendatutako Kultura Saileko funtzionarioa; hori Kirolaren Euskal Kontseiluaren idazkaria izango da (hitza badu baina botorik ez).

2.– Kirolaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuraren Lehendakaritzak bilera bakoitzean garatu beharreko gaietan adituak diren pertsonak egotea baimendu ahal izango du. Pertsona horiek hitza izango dute baina botorik ez.

3.– j) eta t) bitarteko ataletan (biak barne) aipatutako kontseilu-kideak sektore zehatz bakoitzean adierazgarrienak diren pertsonak izango dira.

Xede horretarako, urte olinpiko bakoitzaren hirugarren hiruhilekoan, Osoko Bilkuran parte hartzeko per-

k) Una persona, en representación del deporte profesional, designada por la Consejera de Cultura entre las personas propuestas desde dicho sector.

l) Cuatro personas, en representación de federaciones deportivas vascas de modalidades olímpicas, designadas por la Consejera de Cultura entre las personas propuestas desde dicho sector.

m) Dos personas, en representación de federaciones deportivas vascas de modalidades no olímpicas, designadas por la Consejera de Cultura entre las personas propuestas desde dicho sector.

n) Dos personas, en representación de las federaciones deportivas vascas de las modalidades relacionadas en la disposición adicional quinta de la Ley 14/1998, designadas por la Consejera de Cultura entre las personas propuestas desde dicho sector.

o) Una persona, en representación del deporte practicado por personas que padecen minusvalías físicas, psíquicas, sensoriales o mixtas, designada por la Consejera de Cultura entre las personas propuestas desde dicho sector.

p) Una persona, en representación del deporte universitario, designada por la Consejera de Cultura entre las personas propuestas desde dicho sector.

q) Una persona, en representación del deporte recreativo, designada por la Consejera de Cultura entre las personas propuestas desde dicho sector.

r) Una persona, en representación del deporte escolar, designada por la Consejera de Cultura entre las personas propuestas desde dicho sector.

s) Tres personas designadas por la Consejera de Cultura a propuesta de instituciones o entidades, públicas o privadas, que se vayan creando en el campo del deporte o para representar intereses o segmentos no presentes en el Consejo de otro modo.

t) Hasta tres personas designadas por la Consejera de Cultura entre personas de reconocido prestigio en el mundo del deporte.

u) Un funcionario del Departamento de Cultura, designado por la Consejera de Cultura, que actuará como Secretario del Consejo Vasco del Deporte, con voz pero sin voto.

2.– La Presidencia del Pleno del Consejo Vasco del Deporte podrá recabar la presencia en sus sesiones de personas especializadas en los temas que fueren objeto de tratamiento en las mismas, personas que podrán actuar con voz pero sin voto.

3.– La designación de los miembros del Consejo que aparecen citados entre los apartados j) y t), ambos inclusive, recaerá en las personas que resulten más representativas de cada uno de los sectores específicos que representen.

A tales efectos, en cada año olímpico, las personas, órganos o entidades que puedan proponer personas pa-

tsona, erakunde edo entitateetako sektore zehatzetako ordezkariek aipatutako Sailari adierazi beharko diote zein pertsona proposatzen duten.

Aurreko epea bukatuta, hurrengo hilabeteko epearen barruan, aurkeztutako proposamenak aztertu, kideak izendatu eta Kirolaren Euskal Kontseiluaren Osoko eta Iraunkorrerako deialdiak egingo dira. Kirolaren Euskal Kontseiluan ordezkaria izan behar duen sektoreren batek izendatzeko proposamenik egiten ez badu, Kultura sailburuak berak izendatuko ditu pertsona horiek.

4.– Kirolaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurako kideak Kultura sailburuaren agindu baten bitartez izendatuko dira, eta hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

*8. artikulua.–* Osoko Bilkuraren Funtzioak.

Kontseiluaren Osoko Bilkurak ondokoak egin ahal izango ditu:

a) Euskal Autonomia Erkidegorako kirol politika orokorraren jarraibideak proposatzea.

b) Kirolarekin lotuta dauden eta legearen barruan dauden xedapen proiektuei buruzko irizpenak onestea.

c) Urteroko memoria onestea; bertan Kontseiluak garatzen duen jarduera, Euskal Autonomia Erkidegoko kirol egoera eta beharrezko iradokizunak jasoko dira.

d) Osoko Bilkuran egongo diren Batzar Iraunkorreko kirol sektore publiko nahiz pribatuko kideak izendatzea, .

e) Kontseiluaren Lehendakaritzaren iritziz beharrezkoak izan eta kirolaren munduarekin zerikusia duten arazoetan parte hartzea.

*9. artikulua.–* Osoko Bilkurako kideen agintaldia.

1.– 7.1 artikuluaren a), b), c), d), e), f) eta u) ataletan agertzen diren Kirolaren Euskal Kontseiluko Osoko Bilkuraren kideak kargu edo egoera jakin batean egoteagatik izendatu zirenez, kargu edo egoera horretan jarraitzen duten bitartean mantenduko dira.

2.– Artikulu horren berorren g), h), i) eta j) ataletan agertzen direnak mantendu egiten dira beraiek izendatu behar dituen entitateak modu formalean aldaketarik adierazten ez duen bitartean.

3.– Gainerako kideen agintaldia lau urtekoa izango da (berriztagarriak). Horien arteko baten batek kargua utziko balu, hil delako, ezinduta dagoelako, kargua bertan behera utzi duelako edo antzeko arazo baten ondorioz, bere tokia hartzen duen pertsonak aurretik izendatua izan den pertsonari geratzen zaion agintaldia beteko du. Bete gabe geratzen diren postuak hilabeteko epean beteko dira, Kontseiluaren idazkaritzari egoera jakinarazten zaion unetik beretik hasita.

ra formar parte del Pleno en representación de sectores específicos lo comunicarán al citado Departamento.

Finalizado el plazo anterior y dentro del plazo adicional de un mes se procederá al estudio de las propuestas realizadas, al nombramiento de los miembros y a la convocatoria del Pleno y de la Comisión Permanente del Consejo Vasco del Deporte. En el supuesto de que respecto a algún sector del deporte que deba estar representado en el Consejo Vasco del Deporte no se reciban propuestas de nombramiento, la Consejera de Cultura procederá a la libre designación de dichas personas.

4.– El nombramiento de los miembros del Pleno del Consejo Vasco del Deporte se realizará por Orden de la Consejera de Cultura que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Artículo 8.–* Funciones del Pleno.

El Pleno del Consejo será competente para:

a) Proponer directrices de política deportiva general para la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Aprobar los dictámenes relativos a los proyectos de disposiciones de rango legal relacionados con el deporte.

c) Aprobar una memoria anual que recoja la actividad desarrollada por el Consejo, la situación deportiva en el País Vasco y las oportunas recomendaciones.

d) Nombrar los miembros de la Comisión Permanente que representen los distintos sectores deportivos, públicos y privados, presentes el Pleno.

e) Intervenir en aquellos asuntos relacionados con el ámbito del deporte que la Presidencia del Consejo estime oportuno.

*Artículo 9.–* Mandato de los miembros del Pleno.

1.– El mandato de los miembros del Pleno del Consejo Vasco del Deporte que aparecen señalados en los apartados a), b), c), d), e), f) y u) del artículo 7.1, se mantendrá en tanto ostenten el cargo o la condición que hayan determinado su designación.

2.– Los señalados en los apartados g), h), i) y j) del mismo artículo, se mantendrán en tanto en cuanto la entidad llamada a su designación no notifique formalmente cualquier modificación.

3.– El mandato de los restantes miembros será por plazos de cuatro años, renovables. De entre éstos, quienes por defunción, incapacidad, renuncia o causas similares, entren en sustitución de algún miembro lo será por el plazo que le reste al anteriormente designado. Las vacantes que se produzcan por tales circunstancias serán cubiertas en el plazo de un mes desde que se comunique tal circunstancia a la Secretaría del Consejo.

4.– Artikulu honen 3. paragrafoan adierazten diren kideei dagokienez, Kultura Saileko titularra aldatuz gero, titular berriak Kontseiluaren osaketa berrikusi ahal izango du, aurreko puntuan adierazitako epea bukatu ez bada ere. Era berean, Kide horiek Kultura sailburuak kargugabetu ahal izango ditu, beti ere Kirolaren Euskal Kontseiluaren kide diren heinean dagozkien betebeharrak betetzen ez dituztenean, erakunde horren hautematearekin bat etorriz.

5.– Kontseiluko kideek dagozkien funtzioak betetzen jarraituko dute ordezkoen izendapena gertatu arte, kontrako akordiorik izan ezean.

*10. artikulua.*– Batzorde Iraunkorra.

1.– Kirolaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorreko partaideak hauexek dira:

a) Kultura sailburua.

b) Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea.

c) Kirol zuzendaria.

d) Foru Aldundien hiru ordezkari, bakoitza Foru Aldundi batekoa.

e) Osoko Bilkurak bere kideen artean izendatutako lau pertsona. Horiek Osoko Bilkuran dauden kirol sektoreak (publiko nahiz pribatu) ordezkatu beharko dituzte, batez ere udal administrazioa eta kirol federazioak.

f) Kultura sailburuak izendatutako Kultura Saileko funtzionarioa; hori Kirolaren Euskal Kontseiluaren idazkaria izango da (hitza badu baina botorik ez).

2.– Kirolaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuraren Lehendakaritzak bilera bakoitzean garatu beharreko gaietan adituak diren pertsonak egotea baimendu ahal izango du. Pertsona horiek hitza izango dute baina botorik ez.

3.– Batzorde Iraunkorraren funtzioak:

a) Lurraldeko nahiz Euskadiko kirol federazioak osatzeko halabeharrezko txostena onestea.

b) Jarduera bat kirol modalitatetzat hartzeko eta hori osatzen duten diziplinak zehazteko halabeharrezko txostena onestea.

c) Kirol Federazioei dagozkien funtzioak burutzeko kirol entitateak sortzeko halabeharrezko txostena onestea.

d) Kirol ekipamenduetako erroldak egiteko irizpide uniformeei dagokien txostena onestea.

e) Euskal nahiz Lurralde federazioen onespena baliogabetzeko halabeharrezko txostena onestea.

4.– Respecto a los miembros a los que se refiere el párrafo 3 de este artículo, caso de que se produzca un cambio de titular del Departamento de Cultura, el nuevo titular podrá revisar la composición del Consejo aunque no haya finalizado el plazo señalado en el punto anterior. Asimismo, éstos podrán ser destituidos por la Consejera de Cultura cuando incumplan las obligaciones inherentes a su condición de miembros del Consejo Vasco del Deporte, conforme apreciación motivada de aquel órgano.

5.– Los miembros del Consejo continuarán, como regla general, desempeñando sus funciones hasta que surta efectos el nombramiento de los sustitutos, salvo acuerdo en contrario.

*Artículo 10.*– Comisión Permanente.

1.– Formarán parte de la Comisión Permanente del Consejo Vasco del Deporte:

a) La Consejera de Cultura.

b) El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

c) El Director de Deportes.

d) Tres representantes de las Diputaciones Forales, uno por cada Diputación Foral.

e) Cuatro personas designadas por el Pleno entre sus miembros. Tales personas deberán representar a los distintos sectores deportivos, públicos y privados, presentes en el Pleno, especialmente a la administración municipal y a las federaciones deportivas.

f) El funcionario designado para ejercer la Secretaria del Consejo Vasco del Deporte, igualmente con voz pero sin voto.

2.– El Presidente de la Comisión Permanente del Consejo Vasco del Deporte podrá recabar la presencia en sus sesiones de personas especializadas en los temas que fueren objeto de tratamiento en las mismas, personas que podrán actuar con voz pero sin voto.

3.– Corresponden a la Comisión Permanente las siguientes funciones:

a) Aprobar el informe preceptivo para la constitución de las federaciones deportivas territoriales y vascas.

b) Aprobar el informe preceptivo para la calificación de una actividad como modalidad deportiva y para la determinación de las disciplinas que la integran.

c) Aprobar el informe preceptivo en orden a la habilitación en favor de entidades deportivas para el ejercicio de funciones propias de las federaciones deportivas.

d) Aprobar el informe en materia de criterios uniformes para la elaboración de los censos de equipamientos deportivos.

e) Aprobar el informe preceptivo para la revocación del reconocimiento de las federaciones vascas y territoriales.

f) Kontseiluaren jardueraren urteroko memoria egitea, gero, Osoko Bilkurak onartzeko.

g) Kirolaren Euskal Kontseiluko jarduketen egutegi nahiz lehentasunak ezartzea.

h) Kirolariak, teknikariak edo epaileak goi-mailakotzat kalifikatzeko irizpide nahiz baldintzei buruzko informazioa ematea.

i) Lege nahiz arauek Kirolaren Euskal Kontseiluari esleitzen dioten beste edozein funtzio betetzea.

*11. artikulua.–* Batzorde Bereziak.

1.– Gai zehatzei buruzko lan zein txostenak egiteko, Batzorde Bereziak eratu ahal izango dira Osoko Bilkuraren onespenarekin. Batzorde horien funtzio nagusiak hauexek izango dira: Osoko Bilkurari laguntzea, baita Batzorde Iraunkorrari ere bere zereginetan eta Osoko Bilkurak nahiz Batzorde Iraunkorrak eztabaidatzeko eta onesteko oinarri izango diren proposamen edo ikerketak egitea.

2.– Kirol eremu zehatzak lantzeko eta organo kolegiatuei laguntzeko osatzen den Batzorde Berezi bakoitzak hiru kide izango ditu gutxienez eta sei gehienez, eta horiek Batzorde Iraunkorrak izendatuko ditu.

3.– Batzorde Berezi bakoitzeko lehendakaria Batzorde Iraunkorrak izendatuko du.

4.– Kirolaren Euskal Kontseiluko Batzorde Bereziek Kontseiluaren Idazkaritzaren laguntza izango dute.

5.– Batzorde Iraunkorraren Lehendakaritzak Batzorde Berezietako bilera bakoitzean garatu beharreko gaietan adituak diren pertsonak egotea baimendu ahal izango du. Pertsona horiek hitza izango dute baina botorik ez.

*12. artikulua.–* Kontseiluaren Lehendakaritza.

1.– Kultura sailburua edo bera ordezteko aukeratzen duen pertsona izango da Kirolaren Euskal Kontseiluko eta Batzorde Iraunkorreko lehendakaria.

2.– Kirolaren Euskal Kontseiluko lehendakariak bete beharrekoak:

a) Kirolaren Euskal Kontseiluren ordezkaria izatea.

b) Bilerak, idazkaritzaren bitartez, iragartzea.

c) Bileren gai-zerrenda zehaztea.

d) Bilerak garatzeko egin beharreko azterketak zehaztea eta horiek burutuko dituzten Kontseiluko edo Batzorde Berezietako kideak izendatzea.

e) Bilerak hasi eta bukatzea.

f) Eztabaidak zuzentzea, kide bakoitzari hitza emanez, partaidetzak moderatuz eta azken horiek mugatuz

f) Elaborar, para su ulterior aprobación por el Pleno, de la memoria anual de actividad del Consejo.

g) Establecer los calendarios y prioridades de actuación del Consejo Vasco del Deporte.

h) Informar sobre los criterios y condiciones que permiten calificar a un deportista, técnico o juez de alto nivel.

i) Cualquier otra función que le sea encomendada por las leyes y reglamentos al Consejo Vasco del Deporte.

*Artículo 11.–* Comisiones Especiales.

1.– Para la realización de trabajos e informes sobre materias concretas se podrán crear Comisiones Especiales mediante acuerdo en tal sentido de la Comisión Permanente. Serán funciones generales de estas Comisiones la de auxiliar al Pleno y a la Comisión Permanente en el cumplimiento de sus funciones y la de realizar estudios, propuestas o ponencias que sirvan de base para su debate y aprobación por el Pleno o la Comisión Permanente.

2.– Cada una de las Comisiones Especiales que se constituyan con el fin de abordar áreas específicas del deporte y auxiliar a dichos órganos colegiados, estará integrada por un mínimo y un máximo de tres y seis miembros respectivamente, designados por la Comisión Permanente.

3.– El Presidente de cada una las citadas Comisiones Especiales estará designado por la Comisión Permanente.

4.– Las Comisiones Especiales del Consejo Vasco del Deporte contarán con el apoyo de la Secretaría del Consejo.

5.– La Presidencia de la Comisión Permanente podrá recabar la presencia en sus sesiones de personas especializadas en los temas que fueren objeto de tratamiento en las Comisiones Especiales, personas que actuarán con voz pero sin voto.

*Artículo 12.–* Presidencia del Consejo.

1.– Ejercerá la Presidencia del Consejo Vasco del Deporte, del Pleno y de la Comisión Permanente la Consejera de Cultura o persona en quien delegue.

2.– A la persona que ejerza la Presidencia del Consejo Vasco del Deporte le corresponde:

a) Representar al Consejo Vasco del Deporte.

b) Convocar, a través de la Secretaría, sus sesiones.

c) Fijar el orden día de las sesiones.

d) Determinar los estudios que deban elaborarse para el desarrollo de las sesiones y designar los miembros del Consejo o las Comisiones Especiales que hayan de realizarlos.

e) Abrir y levantar sesiones.

f) Dirigir las deliberaciones, dando la palabra a cada participante, moderando las intervenciones y limi-

denbora aldetik, kide guztiek parte hartu ahal izateko eta bileren antolaketa egokia bermatzeko.

g) Izan daitezkeen berdinketetan, bere botoarekin azken erabakia hartzea.

h) Bere sinadurarekin Kirolaren Euskal Kontseiluaren aktak baimentzea.

i) Dekretu honetako 5. artikuluan adierazten diren eskakizunak administrazio publikoetako erakundeei zuzentzea.

j) Dekretu honek edo indarreko araudiak ematen dion beste edozein funtzio betetzea.

3.– Funtzio horiek Kontseiluko lehendakariordearen edo horrek aukeratutako pertsonaren esku utzi daitezke.

*13. artikulua.*– Kontseiluaren Lehendakariordetza.

1.– Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea edo bera ordezteko aukeratzen duen pertsona izango da Kirolaren Euskal Kontseiluko eta Batzorde Iraunkorreko lehendakariordea.

2.– Kirolaren Euskal Kontseiluko lehendakariordeak bete beharrekoak:

a) Lehendakariaren tokia betetzea hori ez egotearen, gaixotasunen baten edo antzeko arazoren baten eraginez.

b) Lehendakaritzak eskuordetutako funtzioak betetzea.

3.– Lehendakariordetzaren funtzio horiek Kirol zuzendariarengan ere eskuordetu ahal izango dira.

*14. artikulua.*– Idazkaritza.

1.– Kontseiluko, Osoko Bilkurako eta Batzorde Iraunkorreko Idazkaritza Kultura sailburuak aukeratuko du, Saileko funtzionarioen artean. Idazkari horrek hitza badu baina ez botorik, eta Saileko beste funtzionarioen laguntza jaso ahal izango du.

2.– Kontseiluko Idazkariak azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 25.3 artikuluan agertzen diren funtzioak bete beharko ditu. Lege hori Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa da. Ondoren agertzen diren zeregin hauek ere izango ditu:

a) Bileren gai-zerrenda prestatu nahiz burutzea.

b) Lehendakaritzaren aginduz Batzordearen bileretarako deialdiak egitea.

c) Lehendakaritzarekin batera, bileretako aktak idatzi eta luzatzea.

d) Akten, txostenen nahiz akordioen ziurtagiriak luzatzea.

e) Kirolaren Euskal Kontseiluaren agirien, espedienteen nahiz kontsulten sarrera zein irteeraren erregistroa (egunean egunekoa) egitea.

tando, en su caso, la duración de las mismas en aras de permitir la participación de todos ellos y de garantizar la buena marcha de las sesiones.

g) Decidir con su voto los empates que se puedan producir.

h) Autorizar con su firma las actas del Consejo Vasco del Deporte.

i) Dirigir a los órganos de las Administraciones públicas los requerimientos referidos en el artículo 5 de este Decreto.

j) Cualesquiera otras funciones que le atribuya el presente Decreto o la normativa vigente.

3.– Dichas funciones son delegables en el Vicepresidente del Consejo o en la persona en quien delegue.

*Artículo 13.*– Vicepresidencia del Consejo.

1.– Ejercerá la Vicepresidencia del Consejo Vasco del Deporte, del Pleno y de la Comisión Permanente el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes o persona en quien delegue.

2.– A la persona que ostente la Vicepresidencia del Consejo Vasco del Deporte le corresponde:

a) Suplir al titular de la Presidencia en caso de vacante, ausencia, enfermedad o causa de similar entidad.

b) Ejercer las funciones que le sean delegadas por la Presidencia.

3.– Dichas funciones de la Vicepresidencia son también delegables en el Director de Deportes.

*Artículo 14.*– Secretaría.

1.– Ejercerá la Secretaría del Consejo, del Pleno y de la Comisión Permanente el funcionario designado por la Consejera de Cultura entre los funcionarios del Departamento. Dicho Secretario, que actuará con voz pero sin voto, podrá ser auxiliado por otros funcionarios de dicho Departamento.

2.– Al funcionario designado para ejercer la Secretaría del Consejo le corresponden las funciones atribuidas a los secretarios de órganos colegiados por el artículo 25.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y singularmente las siguientes:

a) Preparar y cursar el orden del día de las sesiones.

b) Efectuar la convocatoria de las sesiones de la Comisión por orden de la Presidencia.

c) Redactar y expedir, con la Presidencia, las actas de las sesiones.

d) Expedir certificaciones de actas, informes y acuerdos.

e) Llevar el registro de entrada y salida de las consultas, expedientes y demás documentos del Consejo Vasco del Deporte.

f) Kirolaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Berezien koordinazio lanak burutzea.

g) Organo Kolegiatu bati dagozkion gainontzeko funtzioak betetzea.

3.– Idazkariaren tokia Lehendakaritzak izendatutako bokalak edo Kultura Saileko funtzionario batek bete ahal izango du; beti ere, Idazkaria ez badago, gaixo badago edo antzeko arazoren baten eraginez.

*15. artikulua.*– Kontseiluko kideen eskubideak eta betebeharrak.

Kirolaren Euskal Kontseiluko kide bakoitzak ondokoa bete behar du:

a) Bileretara joatea eta horietan parte hartzea.

b) Botoa ematea, horren zergatia adieraziz, baita boto partikularra ematea ere, gehiengoaren iritziarekin bat ez datorrenean.

c) Organo Kolegiatu bateko kideek bete beharreko beste funtzio nahiz eginkizunak.

III. KAPITULUA
FUNTZIONAMENDUA

*16. artikulua.*– Osoko Bilkura.

Kirolaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkura ohizko bileran bilduko da urtean behin. Ohizkanpoko bileran ere bildu ahal izango dira lehendakariak eskatzen badu, egoki deritzonean beti ere.

*17. artikulua.*– Batzorde Iraunkorra.

Kirolaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra ohizko bileran bilduko da hiru hilabetero. Ohizkanpoko bileran ere bildu ahal izango dira lehendakariak eskatzen badu, egoki deritzonean beti ere.

*18. artikulua.*– Batzorde Bereziak.

1.– Batzorde Bereziak iraunkorrak edo ez iraunkorrak izango dira, eta osaketa-akordioaren araberako funtzionamenduan oinarrituko dira.

2.– Batzorde Bereziak osaketa-akordioan ezartzen den ohizko aldikotasunez bilduko dira. Ohizkanpoko bileran ere bildu ahal izango dira lehendakaritzak eskatzen badu, egoki deritzonean beti ere.

*19. artikulua.*– Deialdiak.

1.– Kirolaren Euskal Kontseiluaren deialdiak, jarduketa maila edozein izanda ere, dagokion lehendakaritzak agindutakoaren arabera egingo dira, gutxienez zazpi egun natural baino lehen. Deialdian bilera non, noiz eta zein ordutan den zehaztu beharko da.

2.– Gutxieneko aurrerapen hori betetzea bertan behera utziko da premia duten bileren kasuan.

f) Desempeñar labores de coordinación de las Comisiones Especiales del Consejo Vasco del Deporte.

g) Las demás funciones inherentes a la condición de secretario de un órgano colegiado.

3.– En los casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal el Secretario podrá ser sustituido por el vocal que designe la Presidencia o por otro funcionario adscrito al Departamento de Cultura.

***Artículo 15.***– Derechos y deberes de los miembros del Consejo.

A cada uno de los miembros de los distintos órganos colegiados del Consejo Vasco del Deporte les corresponde:

a) Asistir a las sesiones y participar en las mismas.

b) Emitir su voto, expresando el sentido del mismo, así como formular voto particular cuando discrepe del parecer de la mayoría.

c) Cuantos otros deberes sean inherentes a su condición de miembros de un órgano colegiado.

CAPÍTULO III
FUNCIONAMIENTO

***Artículo 16.***– Pleno.

El Pleno del Consejo Vasco del Deporte se reunirá en sesión ordinaria una vez al año. En sesión extraordinaria podrá reunirse a iniciativa del Presidente siempre que se considere oportuno.

***Artículo 17.***– Comisión Permanente.

La Comisión Permanente se reunirá en sesión ordinaria al menos una vez cada tres meses. En sesión extraordinaria podrá reunirse a iniciativa del Presidente siempre que se considere oportuno.

***Artículo 18.***– Comisiones Especiales.

1.– Las Comisiones Especiales podrán ser permanentes o no y se atendrán en cuanto a su funcionamiento a los términos del acuerdo de constitución.

2.– Las Comisiones Especiales se reunirán con la periodicidad ordinaria que se establezca en el acuerdo de constitución. En sesión extraordinaria podrá reunirse a iniciativa de la Presidencia siempre que se considere oportuno.

***Artículo 19.***– Convocatorias.

1.– Las convocatorias del Consejo Vasco del Deporte, en cualquiera de sus niveles de actuación, serán realizadas por orden de la Presidencia respectiva con una antelación mínima de siete días naturales. En la convocatoria habrá de fijarse el día, lugar y hora de celebración de la sesión.

2.– Quedarán dispensadas de dicho requisito de antelación mínima aquellas sesiones que revistan urgencia.

*20. artikulua.–* Bileren gai-zerrenda.

Kirolaren Euskal Kontseiluko Osoko Bilkurako eta Batzordeetako kideek, bakoitzak bere jarduketa mailan, berorren lehendakaritzari proposatu ahal izango diote gai-zerrendan punturen bat gehitzea, beti ere, behar besteko aurrerapenarekin eginez gero, eta proposamenean proposamen horren memoria justifikagarria erantsita badago.

*21. artikulua.–* Kirolaren Euskal Kontseilua osatzea.

1.– Kirolaren Euskal Kontseilua, edozein jarduketa mailan, modu baliagarrian osatuta geratuko da lehen deialdian bertako kideen erdia gehi bat biltzen direnean. Bilerak baliagarriak izateko, Kontseiluko lehendakaria eta Idazkaria egon beharko dira bertan.

2.– Lehenengo deialdian behar besteko quorumik ez badago, bigarren deialdi bat egin ahal izango da lehenengoa izan eta hogeita hamar minutu igaro direnean; kasu honetan, kideen herena bertan izatea nahikoa izango da eta gutxienez hiru kide egon beharko dira.

*22. artikulua.–* Akordioak hartzea.

1.– Kirolaren Euskal Kontseilura (Osoko Bilkuran nahiz Batzordeetan) aurkezten diren txosten, gomendio eta gainerako testuak gehiengoak onartu beharko ditu, bertan dauden Kontseiluko kideek berdinketa lortzen badute, orduan, lehendakaritza duen pertsonak bere kalitatezko botoarekin apurtu beharko du berdinketa hori.

2.– Botazio sistema boto zuzenean oinarrituko da, pertsonala izango da eta ezin izango da beste norbaiten esku utzi; gainera, kideren batek botoa sekretua izatea eskatzen dionean lehendakaritzari, hori sekretua izatea bermatu beharko da.

*23. artikulua.–* Boto partikularrak.

1.– Kirolaren Euskal Kontseiluko kideek, dagokien jarduketa mailan, gehiengoaren kontrako boto partikularra eman ahal izango dute; hori bai, bilera bukatu baino lehen jakinarazi beharko dute.

2.– Boto partikularrak idatziz bidali beharko dira Kontseiluko Idazkaritzara bost egun natural baino lehen, bilera amaitu ondoren. Boto partikular horiek gehiengoak hartutako akordio-testuan erantsiko dira.

*24. artikulua.–* Aktak.

1.– Kirolaren Euskal Kontseiluko Osoko Bilkuraren, Batzorde Iraunkorraren eta Batzorde Berezien akordioak aktan jasoko dira, eta aktak ondokoa adieraziko du:

a) Bilera noiz, non eta zein ordutan izan den.

b) Bilerara agertutakoen izen-abizenak eta bakoitzaren ordezkaritza.

*Artículo 20.–* Orden del día de las sesiones.

Los miembros del Pleno y de las Comisiones del Consejo Vasco del Deporte, en sus respectivos niveles de actuación podrán proponer a la Presidencia del mismo, la inclusión de algún punto en el Orden del Día, siempre que lo haga con antelación suficiente y acompañe a su propuesta una sucinta memoria justificativa de la propuesta.

*Artículo 21.–* Constitución del Consejo Vasco del Deporte.

1.– El Consejo Vasco del Deporte, en cualquiera de sus niveles de actuación, quedará válidamente constituido cuando concurran en primera convocatoria la mitad más uno de sus correspondientes miembros. La válida celebración de las sesiones requerirá en todo caso la presencia del Presidente y del Secretario.

2.– Si no existe quórum suficiente se podrá constituir en segunda convocatoria treinta minutos después de la primera, siendo en este caso suficiente con la presencia de la tercera parte de sus miembros, con un mínimo de tres.

*Artículo 22.–* Adopción de acuerdos.

1.– Los informes, recomendaciones y demás textos que se sometan al Consejo Vasco del Deporte, ya en Pleno o Comisiones, serán adoptados por mayoría simple de los miembros presentes dirimiéndose los empates mediante el voto de calidad de quien ejerza la Presidencia.

2.– El sistema de votación responderá a los principios de voto directo, personal e indelegable, debiendo garantizarse el voto secreto cuando cualquiera de los miembros lo solicite a la Presidencia.

*Artículo 23.–* Votos particulares.

1.– Los miembros del Consejo Vasco del Deporte, en sus respectivos niveles de actuación, podrán formular voto particular contra el acuerdo de la mayoría, siempre que lo anuncien antes de levantarse la sesión.

2.– Los votos particulares tendrán que remitirse por escrito dentro de un plazo no superior a cinco días naturales, tras la finalización de la sesión, a la Secretaría del Consejo. Dichos votos particulares se incorporarán al texto del acuerdo de la mayoría.

*Artículo 24.–* Actas.

1.– Los acuerdos del Pleno, de la Comisión Permanente y de las Comisiones Especiales del Consejo Vasco del Deporte constarán en acta, la cual expresará lo siguiente:

a) Fecha, hora y lugar de la sesión.

b) Nombres y apellidos de los asistentes y representación que ostentan.

c) Aztertutako gaiak eta eztabaida nahiz akordioen erreferentzia laburra.

2.– Aktak Kontseiluaren Idazkaritzak sinatu beharko ditu, eta lehendakaritzaren onespena jaso beharko dute; gainera, bilera horretan bertan edo hurrengoan akta hori onartu beharko da.

3.– Bidezko interesen titular direla ziurtatzen dutenek Idazkaritzara jo ahal izango dute onetsitako testuen ziurtagiria luzatzeko.

*25. artikulua.–* Gastuak.

Kirolaren Euskal Kontseiluko kideek edo Kontseiluan aditu gisa parte hartzen dutenek ez dute ordainsaririk izango, baina Kontseiluko kide nahiz parte-hartzaileek otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan jasota dagoen heinean, gastuak eta dietak kobratzeko aukera izango dute.

IV. KAPITULUA
ESKU-HARTZE PROZEDURA

*26. artikulua.–* Esku-hartzea eskatzeko era.

Kirolaren Euskal Kontseiluak esku-hartzeko eskabidea kontsulta egin nahi duen organoaren akordio baten bidez egingo da; horrekin batera, xedapen proiektuaren kopia edo txostena jaso behar duen espedientearena egon beharko dira.

*27. artikulua.–* Irizpena.

Kirolaren Euskal Kontseiluaren Lehendakaritzak, esku-hartze eskaera jaso ondoren, beharrezko irizpena onetsiko duen organoa izendatuko du.

*28. artikulua.–* Txostenaren edukia.

1.– Irizpenean ondoko datuak agertuko dira: Kontseiluari egin nahi zaion eskabidea, hori onartu zuteneko bilera noiz egin zen eta bilera horretara joan zirenen zerrenda. Era berean, zein modutan onetsi den adierazi beharko da: aho batez, gehiengoz edo lehendakariaren botoarekin.

2.– Irizpenari, emandako boto partikularrak erantsiko zaizkio, eta bertan atxiki zirenen kideen izenak agertuko dira.

*29. artikulua.–* Irizpena bidaltzea.

Irizpena kontsulta organora bidaliko da, Kontseiluaren Lehendakaritzak eta Idazkaritzak sinatu ondoren.

*30. artikulua.–* Irizpenen izaera.

1.– Kirolaren Euskal Kontseiluak halabeharrezko esku-hartzea izango du Dekretu honetan jasotzen diren ustezko guztietan edo legezko nahiz araudizko beste arau batean jasotzen direnetan.

2.– Kirolaren Euskal Kontseiluaren irizpenak ez dira lotesleak izango, araudian kontrakoa jarri ezean.

c) Temas tratados, sucinta referencia de las deliberaciones y acuerdos tomados.

2.– Las actas deberán ser firmadas por la Secretaría del Consejo con el visto bueno de la Presidencia y serán sometidas a la aprobación en la misma o siguiente sesión.

3.– Quienes acrediten la titularidad de un interés legítimo podrán dirigirse a la Secretaría del Consejo para que les sea expedida certificación de los textos aprobados.

*Artículo 25.–* Gastos.

La pertenencia al Consejo Vasco del Deporte o la participación de personas especializadas en el mismo no dará lugar a retribución alguna pero los miembros y participantes de dicho Consejo tendrán derecho al abono de los gastos y dietas en los términos que se determinan en el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio.

CAPÍTULO IV
PROCEDIMIENTO DE INTERVENCIÓN

*Artículo 26.–* Forma de solicitud de intervención.

La intervención del Consejo Vasco del Deporte se formulará mediante acuerdo del órgano consultante acompañando copia del proyecto de disposición o del expediente que debe ser objeto de informe.

*Artículo 27.–* Informe.

La Presidencia del Consejo Vasco del Deporte, una vez recibida la solicitud de intervención, designará el órgano que deberá aprobar el informe correspondiente.

*Artículo 28.–* Contenido del informe.

1.– En el informe se expresará, además del parecer sobre el asunto sometido al Consejo, la fecha de la sesión en que se hubiese aprobado, el nombre de los asistentes a dicha sesión. Asimismo, se indicará si ha sido aprobado por unanimidad, por mayoría o en virtud del voto dirimente del Presidente.

2.– Al informe se le adjuntará el voto o votos particulares emitidos y en ellas se indicará el nombre del autor y de los miembros que se hubieran adherido.

*Artículo 29.–* Remisión del informe.

El informe será remitido al órgano consultante firmado por la Presidencia y por la Secretaría del Consejo.

*Artículo 30.–* Carácter de los informes.

1.– La intervención del Consejo Vasco del Deporte será preceptiva en todos aquellos supuestos previstos por el presente Decreto o en cualquier otra norma con rango legal o reglamentario.

2.– Los informes del Consejo Vasco del Deporte no serán vinculantes salvo que normativamente se disponga lo contrario.

*31. artikulua.–* Irizpen berriaren beharra.

Irizpenaren oinarri izan ziren Legearen aurreproiektuak edo xedapen araudiko proiektuak gerora aldaketak izaten baditu (Kirolaren Euskal Kontseiluaren proposamenekin edo iradokizunekin bat ez datozenak), kontsulta berria egingo zaio Kontseiluari (xedapen horiei buruzkoa).

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehena.–* Lehenengo Kontseilua osatzeko proposamena.

7. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Kontseiluaren lehenengo kideak izendatzea (ez dago deialdi zuzenik), ondoko arauekin bat etorriaz egingo da:

– Dekretu hau indarrean sartu ondorengo hilabetean, Kirolaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuran ordezkariren bat duen organo nahiz entitate bakoitzak Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari jakinaraziko dio zein pertsona proposatzen duten posturako.

– j) eta t) bitarteko ataletan (biak barne) agertzen direnei dagokienez, aurreko paragrafoan adierazitako epe berdina izango da, Kontseiluan postu bat izan dezaketela pentsatzen duten talde nahiz entitateek beraien proposamena igorriko diote Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari; bertan, talde horren ordezkari izateko arrazoiak adierazi beharko dituzte, baita dagokion mailan Batzordeko kide izateko proposatzen duten pertsonarena ere.

– Aipatutako epea bukatu ondoren, hamabost eguneko epean, jasotako proposamenak aztertuko dira, eta Kultura sailburuak Kontseiluko kideak izendatuko ditu. Horiek sektorearen hautagai adierazgarrienak izango direlarik.

*Bigarrena.–* Koordinazioa.

Kirolaren Euskal Kontseiluak kontuan izan beharko du, bere funtzioak betetzerakoan, Euskal Autonomia Erkidegoan kirolaren munduan antzeko zereginetarako osaturiko kontsulta-organoek garatzen dituzten jarduerak.

*Hirugarrena.–* Lankidetza gainontzeko instituzioekin

Kirolaren Euskal Kontseiluak instituzio publiko nahiz pribatuekiko lankidetza sustatuko du, Euskal herri-kirolak egiten diren lurraldeetan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

*Bakarra.–* Indargabetzea.

Urtarrilaren 24ko 9/1989 Dekretua indargabetuta gertatzen da, eta, orokorrean, Dekretu honetan jasota-

*Artículo 31.–* Necesidad de nuevo informe.

Si el anteproyecto de ley o el proyecto de disposición reglamentaria sobre el que versó el informe son objeto de modificaciones sustanciales posteriores que no responden a las sugerencias o propuestas efectuadas por el Consejo Vasco del Deporte, se elevará nueva consulta al Consejo sobre dichas disposiciones.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.–* Propuesta de composición del primer Consejo.

A los efectos previstos en el artículo 7, la designación de los primeros miembros del Consejo respecto a los que no existe un llamamiento directo, se efectuará conforme a las siguientes reglas:

– En el plazo de un mes contado a partir de la entrada en vigor del presente Decreto, cada órgano o entidad que ostente algún representante en el Pleno del Consejo Vasco del Deporte, comunicará al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, la persona que propongan para ocupar el correspondiente puesto.

– En cuanto a los relacionados en los apartados j) hasta el t), ambos inclusive, dentro del mismo plazo señalado en el anterior, los grupos o entidades que consideren que puedan ocupar un puesto en el Consejo remitirán su propuesta al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, con expresa indicación de las circunstancias que les hagan valedores de representar al correspondiente colectivo y de las de la persona que propongan como miembro del Comité en su correspondiente categoría.

– Finalizado el plazo señalado, en un plazo adicional de quince días se procederá al estudio de las propuestas recibidas y al nombramiento por la Consejera de Cultura de los miembros del Consejo que recaerá en las candidaturas más representativas del sector.

*Segunda.–* Coordinación.

El Consejo Vasco del Deporte deberá tener en cuenta en el desempeño de sus funciones las actuaciones desarrolladas por órganos consultivos de idéntica naturaleza constituidos en la Comunidad Autónoma del País Vasco en el ámbito del deporte.

*Tercera.–* Colaboración con otras instituciones.

El Consejo Vasco del Deporte impulsará la colaboración con las instituciones públicas e iniciativa privada de los territorios en los que se practique deporte tradicional vasco.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

*Única.–* Derogación

Queda expresamente derogado el Decreto 9/1989, de 24 de enero, y en general cuantas disposiciones de igual

koarekin bat ez datozen maila bereko nahiz baxuagoko xedapenak.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.*– Gehigarritasuna.

Dekretu honetan jasotzen ez diren materia guztiei dagokienez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean edo hori ordezten duen xedapenean jasotakoa beteko da.

*Bigarrena.*– Garapena.

Kultura sailburuak Dekretu hau garatu nahiz betearazteko beharrezko xedapenak emateko baimena du.

*Hirugarrena.*– Indarrean sartzea.

Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko azaroaren 7an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

o inferior rango se opongan a lo dispuesto en el presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Supletoriedad.

En todas las materias no contempladas en el presente Decreto se estará a lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, o disposición que la sustituya.

*Segunda.*– Desarrollo.

Se autoriza a la Consejera de Cultura a dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Tercera.*– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 7 de noviembre de 2000.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILBURUA

## Zk-5291

235/2000 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, zeinaren bitartez behi-okela edo abelgorrien haragia eta haren ondoriozko produktuak etiketatzeko aukerako sistema ezartzeko arauak eman baitira Euskal Autonomia Erkidegorako.

Europako Parlamentuak bai eta Kontseiluak ere, 2000ko uztailaren hamazazpian, 1760/2000 (EE) Erregelamendua onetsi zuten. Erregelamendu horretan hauxe ezarri dute: etiketatzeko sistema nahitaezkoa eta etiketatzeko sistema borondotezkoa edo aukerakoa, behi-okela edo abelgorrien haragia eta haren ondoriozko produktuentzako, haiei buruzko gutxieneko informazioa bermatu, eta informazio osagarria ere ahalbidetzeko, aditzera ematearren etiketadun haragi-okelaren edo okelak jatorri duen aberearen etorkia, hainbat zehaztasun edo ekoizpenaren baldintzak. Sistema horrek -zei-

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

## N°-5291

DECRETO 235/2000, de 21 de noviembre, por el que se regulan en la Comunidad Autonoma del País Vasco las medidas de aplicación de un sistema de etiquetado facultativo de la carne de vacuno y de los productos a base de carne de vacuno.

El Reglamento (CE) 1760/2000, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 17 de julio, establece un sistema de etiquetado obligatorio y otro voluntario para la carne de vacuno y los productos a base de carne de vacuno con objeto de garantizar una información mínima acerca de la misma y de permitir información complementaria relativa al origen, determinadas características o condiciones de producción de la carne etiquetada o del animal del que procede. Lo que fundamentalmente se pretende conseguir con este sistema, que se completa con el Reglamento (CE) 1825/2000, de la Co-